

# LITERATURA

Deskribapena: Kike, Frantziako Liburutegi Nazionalaren kanpoaldean ageri da.

Kike: Argi dago hau ez dela Euskal Etxea, lasai, badakit eta! Hau Frantziako Liburutegi Nazionala da eta, bertan, euskaldunontzat garrantzi berezia duen liburu bat dago. Goazen!

Deskribapena: Kike liburutegian sartzen da eta, Genevieve Guilleminot liburuazainarekin agertzen da Beñat Etxepareren “Linguae Vasconum Primitiae” liburua mahai gainean dutela.

Kike: Frantziako Liburutegi Nazionalaren barruan gaude eta, hona etortzeko arrazoia liburu hau da, euskaraz idatzitako lehen liburu, Beñat Etxeparek idatzi zuen mila bostehun eta berrogeita bosgarren urtean eta, liburu honek berezitasun bat dauka, munduan dagoen ale bakarra da eta, horixe hementxe dago. Euskaldunontzat beraz, altxor bat, liburu honek eman baitzion hasiera euskal literaturari.

Kike (frantsesez): “Genevieve nolatan iritsi da liburu hau hona?”

Genevieve (frantsesez): “Liburu hau Borboi-Conde printzearena izan zen, Nafarroako erregearen anaia txikia zenarena.”

Kike (frantsesez): “Eta hau al da armarría?”

Genevieve (frantsesez): “Hau da Luis lehenengoa Borboi-Condekoa zenaren armarria, hamaseigarren mendean. Printzearen familiak gorde zuen liburu urteetan. Eta Frantziar iraultzaren garaian, liburutegi nazionalan gordetzeko konfiskatu zitzairen aristokraziako familien liburu gehienekin egin zen bezala.”

Kike: “Areto hau liburu arraroen erreserba da, bertan biltzen dira hamabost hamaseigarren mendeetan idatzitako liburuak eta oso oso oso ale bereziak direnak, esate baterako, “Linguae Vasconum Primitiae”, Etxeparek idatzitako liburu hau.”

Kike (frantsesez): “Ikusi ahal dezakegu pixka bat?”

Deskribapena: Genevieve-k liburu zabaltzen du eta orriak pasatzen ditu.

Kike: Hementxe ikusten duzue azala, “Linguae Vasconum Primitiae”. “Kontrapas”, denok inoiz abestu izan dugun abestia: “Garaziko herria, benedika dadila, euskarari eman dio, behar duen thornuya. Euskara, euskara, jalgi hadi plazara; euskara, euskara, jalgi hadi mundura; euskara, euskara, habil mundu guzira.” Hementxe gure aurrean Etxeparek mila bostehun eta berrogeita bostean idatzitako poesia. Eta hementxe duzue Sautrela, azkenengo poesia. Eta nik uste det gaur egun ere oso oso baliagarria zaigun esaldi batekin hasten duela: “Euskara da kanpora eta, goazen oro dantzara”. Benetan hasiera alaia eman zion Etxeparek euskal literaturari.